

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

46/2019 TXOSTENA

Gaia: Bermeoko Udala, Sabadell Real Estate Development eta 21.2 exekuzio unitateko konpentsazio batzaren arteko hitzarmena

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.7 artikulua

Aurrekariak

Lehena.- 2019ko maiatzaren 10ean Bermeoko 21.2 exekuzio unitateko Kontzertazio-batzak onartu zuen Udalari proposatzea zenbait urbanizazio obren hartzea berandutzea.

Bigarrena.- 2019ko ekainaren 28an urigintza, obra eta ingurumen saileko AOTak hitzarmenaren justifikatze memoria egin zuen

Hirugarrena.- 2019ko uztailaren 11n urigintza, obra eta ingurumen saileko AOTak txostena, erabaki proposamena eta hitzarmenaren zirriborroa egin du.

Oinarri juridikoak

1. Aplikagarria den araudia

- Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena (9.8, 25.1, 18.1.c eta 61. Artikulua). Aurrerantzean TRLSRU
- Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzako euskal lehea (7. X.G.). Aurrerantzean LSU
- 1978ko abuztuaren 25eko 3288/1978 Hirigintzako Kudeaketa Erregelamendua
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (5, 21. artikulua). Aurrerantzean LRBRL
- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (111. artikulua). Aurrerantzean TRRL



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2



- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (86. artikulua). Aurrerantzean LPACAP

1. Azterketa juridikoa

Hitzarmenak egiteko ahalmenari buruz

Toki erakundeen oinarriak arautzen dituen Legearen 5. artikularen, TRRL 111. artikularen eta LPACAP 86. artikularen arabera, Bermeoko Udalak orokorrean pertsona juridikoekin hitzarmenak egiteko aukera dauka, beti ere, ordenamendu juridikoa errespetatuta eta interes publikoa kontuan izanda.

Hirigintzaren ikuspuntutik, TRLSRUren 4.artikularen arabera: *la ordenación territorial y la urbanística son funciones públicas no susceptibles de transacción que organizan y definen el uso del territorio y del suelo de acuerdo con el interés general, determinando las facultades y deberes del derecho de propiedad del suelo conforme al destino de éste, y la gestión pública urbanística y de las políticas de suelo fomentará la participación privada.*

Lege honetako 8.artikuluak hirigintza eraldatzeko eta eraikitzeke inizatiba pribatua aurreikusten du.

Prozedurari buruz

TRLSRUren 25.artikuluak zera dio: *los Convenios Urbanísticos relativos a la ordenación y ejecución urbanística deben ser sometidos al trámite de información pública en los términos y por el plazo que establezca la legislación en la materia, que nunca podrá ser inferior al mínimo exigido en la legislación sobre procedimiento administrativo común, y deben publicarse en la forma y con el contenido que determinan las leyes.*

Eta hain justu ere Euskal Lurzoru eta Hirigintzako Legearen 7. Xedapen gehigarriaren arabera hirigintzako hitzarmenak baldintza hauek izan behar dituzte:

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki-entitatek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin,



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2



pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza- jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko. Pertsonok ez dute zertan izan kasuan kasuko lursailen jabe.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako hirigintza-hitzarmenak negoziatu, sinatu eta betetzeko orduan, **legezkotasun-, gardentasun- eta publizitate-printzipioei** jarraitu beharko zaie.

3.– Hirigintza-hitzarmenak era honetakoak izan daitezke, beren xedearen arabera:

a) Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak: indarrean den plangintzan zer aldaketa eta nolako edukiarekin egin daitezkeen zehaztea izango dute xede.

b) Hirigintza-egikaritzeko hitzarmenak: hitzarmena egiteko unean indarrean den plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko izango diren zehaztapenak eta baldintzak izango dituzte xede.

4.– Erabat deusezak izango dira hirigintza-hitzarmenen klausulak, baldin eta legeen edo erregelamenduen aginduzko arauak, lurraldearen edo hirigintzaren plangintzari buruzkoak barne, era batera edo bestera objektiboki hausten badituzte, haien kontrakoak badira edo haiei iruzur egiten badiete.

6.– Hirigintza-hitzarmenek izaera juridiko-administratiboa edukiko dute ondorio guztietarako. Akordioa bete-betean dagoela iritzio zaio eskaintza egin eta hitzarmenaren gaia onartzen denean, nahiz eta gainerako baldintza formalak ere bete beharrekoak izango diren.

7.– Erkidegoari kasuan kasuko hirigintza-eraikigarritasuna lagatzeko legezko eginbeharra, betiere salbuespenezko kasuetan eta lege honetan aurreikusitako eran, diruz ordainduta betetzea xedatzen duten hitzarmenek, edo ondasunen eskualdaketak edo trukeak xedatzen dituzten hitzarmenek, dagokien perito-balorazioa jaso beharko dute, udalaren zerbitzu teknikoek eginda edo berretsita.

8.– Udalarri dagokio hirigintza-hitzarmenak onartzea.

Horretarako, lurralde historikoko aldizkari ofiziala argitaratuko da lehenago osorik, eta jendeaurrean jarriko da, gutxienez 20 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

9.– Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietan, hirigintza- hitzarmenen erregistro bat eta artxibo administratibo bat izango dira. Haietan, hitzarmenen idazpena egingo da, eta hitzarmenen behin betiko testuaren eta, halakorik badute, hitzarmenari erantsitako



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2



agiriaren ale oso bat gordeko da. Udal-erregistroaren arduradunak emandako egiaztagiria bakarrik sinestamenduko du, lege-ondorio guztietarako, hitzarmenaren edukia, eta Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango da egiaztagiri hori.

10.– Pertsona orok izango du artikulua honetan aipatutako erregistroak eta artxiboak kontsultatzeko eskubidea, eta orobat erregistro horietan egindako idazpenen edo artxibo horietan gordetako agiriaren ziurtagiriak eta kopiak lortzeko eskubidea ere.

Eskumenari buruz

Plangintza arloan ez duenez konpromisorik suposatzen eskumena **alkatearena** izango da, LRBRLen 21.1.j eta 22.2.c artikuluen arabera. Dena den ekainaren 21eko 1479 Alkatetza dekretuaren arabera eskumena **Tokiko Gobernu Batzarrak** dauka **eskuordetuta** (abuztuan izan ezik, non hirigintza, obra eta ingurumen **zinegotziak** eskuratzen duen eskumena).

Hitzarmen zirriborroaren edukiari buruz

Aurretik aipatutako LSUko 7. Xedapen gehigarriaren arabera, erabat deusezak izango dira hirigintza-hitzarmenaren klausulak, baldin eta **legeen edo erregelamenduen aginduzko arauak**, lurraldearen edo hirigintzaren plangintzari buruzkoak barne, era batera edo bestera objektiboki hausten badituzte, haien kontrakoak badira edo haiei iruzur egiten badiete. Beraz, atal honetan aztertuko da hitzarmen zirriborroak legea eta erregelamendua hausten badu, haien kontrakoak bada edo haiei iruzur egiten badio.

- **Hitzarmenaren azalpenean III. puntuko 2. paragrafoaren** arabera, adierazten da *"...es del interés de todas las partes firmantes de este Convenio, posponer la ejecución de esa parte de la obra de urbanización contigua a las rampas..."*

Idazkari honek ez du ikusten Bermeoko Udalaren interesa zein den kasu honetan.

- **Kontzertazio-Batza desegin eta erantzukizunetik at uzteari buruz**

TRLSRUren 9.artikuluaren arabera: *"los convenios o negocios jurídicos que el promotor de la actuación celebre con la Administración correspondiente, no podrán establecer"*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2



obligaciones o prestaciones adicionales ni más gravosas que las que procedan legalmente en perjuicio de los propietarios afectados. La cláusula que contravenga estas reglas será nula de pleno Derecho."

LSUren 25.1 artikulua araberan, Urbanizazio lanak modu honetara egin behar dira: **Jabeak jarduketa horri dagozkion urbanizazio-obra guztiak ordaindu beharko ditu, eta, hala badagokio, jarduketa- eremuko obrak, eremu horretako eta loturako azpiegituren eta zerbitzuen obrak epe barruan egikaritu. Orobat, eremu horretan lehendik zeuden azpiegiturek ere sendotu eta handitu beharko ditu, eta hori nahiz eta eremutik kanpo egon, baldin eta jarduketari atxikita badaude hartarako beharrezkoak izateagatik, eta nahiz eta izaera orokorrekoak izan jarduketakoa baino eremu handiagoak hartzeagatik.**

LSUren 22.2. artikulua jarraituta, hiri-lurzoru finkatu gabe modura sailkatutako lursailen kasuan, lehendik legez eginda zeukan hirigintza- eraikigarritasuna handitzeagatik sailkatu baldin bada horrela, 20. artikuluan aurreikusitako ahalmenei ondoko hauek gehituko zaizkie:

a) Eraikitze ahalmena, hirigintza-plangintzan ezarritako eran eraiki ere. Eraikitzearekin batera, halakorik bada, **lursail hori orube bihurtzeko premiazko diren urbanizazio-obra**, behar den fidantza ezarrita, egikaritzeko ahalmena.

LSUren 163.2. artikulua araberan Konpentsazio batzak **plangintza egikaritzearen ardura hartuko du eta zuzeneko erantzukizuna edukiko du**, udalaren aurrean, jarduketa-unitatearen **urbanizazioa erabat egikaritzeari buruz**, bai eta jarduketaren gainerako hirigintza-kargak betetzei buruz ere.

Beraz, kontzertazio batza desegiten bada eta erantzukizunetik at gelditzen bada ezinezkoa izango da legez derrigortuta dauden betebeharraren erantzukizuna eskatzea.

Are gehiago, 1978ko abuztuaren 25eko Hirigintzako Kudeaketako Erregelamenduaren 182. artikulua zera dio:

"1. La Junta de Compensación será directamente responsable, frente a la Administración actuante, de la urbanización completa del polígono o unidad de actuación y, en su caso, de la edificación de los solares resultantes, cuando así se



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaada:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2



hubiere establecido, y de las demás obligaciones que resulten del plan de ordenación, de la bases de actuación o del presente Reglamento.

2. En cuanto a la obligación de urbanizar, la responsabilidad será exigible tanto en lo que afecte a las **características técnicas de la obra de urbanización** ejecutada como a los **plazos** en que ésta debió terminarse y entregarse a la Administración. ”

Eta erregelamendu beraren aurreko artikuluaeren arabera:

“El incumplimiento por los miembros de la Junta de Compensación de las obligaciones y cargas impuestas por la Ley y desarrolladas en este Reglamento, incluso cuando el incumplimiento se refiera a los plazos para cumplir dichos deberes y cargas, habilitará a la Administración actuante para **expropiar** sus respectivos derechos en favor de la Junta de Compensación, que tendrá la condición jurídica de beneficiaria.”

Hortaz, ez da egoki ikusten betebeharra duen kontzertazio batza **desegitea eta erantzukizunetik at uztea**, bera delako obra horien erantzulea eta gutxienez subsidiarioki erantzukizun hori mantendu beharko lukeelako.

- **Obrak jasotzeari buruz**

Obrak jasotzearen baldintzei buruz euskal hirigintza eta lurzoruen legeak 198.artikulan hitz egiten du:

1.- Behin urbanizazio-obren egikaritzea bukatu eta gero, eragile urbanizatzaileak edo obren sustatzaileak udalari jakinaraziko dio obren entrega edo jasotzea zein egunetan, tokitan eta ordutan egingo den. Jakinarazpen hori egiteko epea gutxienez 20 egunekoa izango da, jasotze-egunaren aurretik...

2.- Jasotze-aktan, hain zuzen, udal ordezkariak eta kontzejuaren ordezkariak beren eskumeneko zerbitzuen gainean egindako oharra jasoko dira, halakorik egin bada. Aktaren kopia bat udalari bidaliko zaio.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2



3.- Jasotze-aktan udalak lanen egikaritze materialaren gainean oharrik egiten ez badu, edo jasotze-ekitaldira agertzen ez bada, hilabeteko epea izango du udalak urbanizazioa onartzeko -epe hori, hain zuzen, artikuluko honetako 1. paragrafoan adierazitako jasotze-eskariaren jakinarazpena egiten denetik hasita kontatuko da-. Ez da hala izango, ordea, epe horretan berariaz eta arrazoituz eragozpenak azaltzen baditu jasotzeko, obrak ez direla-eta behar bezala egokitu onarturiko proiektuari.

4.- Jasotze-aktan udalak oharrik egiten baditu, edo aurreko artikuluan adierazi bezala eragozpenak azaltzen baditu, negoziazio-epe bat hasiko da eragile urbanizatzailearen edo sustatzailearen eta udalaren artean, urbanizazioa jasotzeko behar diren baldintzak zehazteko. Baldintza horiek ezingo dute, inola ere, eraginik izan urbanizazio-proiektuan, urbanizazio-obra osagarrien proiektuan edo, hala badagokio, urbanizatzeko jarduketa-programan aurreikusi ez diren obrako elementuetan edo alderdietan.

5.- Behin udalak urbanizazioa jasotzeko behar diren baldintzak zehaztu eta gero, eta, kasua bada, hitzartutako lan osagarriak edo erremate-lanak egin eta gero, urbanizazioa jaso dezan eskatuko dio formalki eragile urbanizatzaileak edo sustatzaileak udalari. Onarpena hilabeteko epean egin beharko da, eskari horren jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

6.- Urbanizazioaren jasotzea, hain zuzen, parte-hartzaileek sinaturiko akta baten bidez formalizatuko da. Akta horren jakinarazpen formal eta bana-banakoa egingo zaie hirigintza-egikaritzaren ondoriozko orubeen jabeei.

1978ko abuztuaren 25eko Hirigintzako Kudeaketa Erregelamenduak (ordezko moduan aplikatzen denak) 180. artikuluan dio:

"1. La cesión de las obras de urbanización e instalaciones y dotaciones cuya ejecución estuviere prevista en el plan de ordenación y proyecto de urbanización aplicables se efectuará por la Junta de Compensación en favor de la Administración actuante dentro de un plazo no superior a tres meses, contado desde la recepción definitiva por la Junta.



Idazkaritza Sailea. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadae:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2



2. La cesión a que alude el número anterior podrá referirse a una parte del polígono o unidad de actuación aun cuando no se haya completado la urbanización de ese ámbito territorial, siempre que el área ya urbanizada constituya una unidad funcional directamente utilizable y se haya producido respecto de la misma la recepción definitiva por parte de la Junta de Compensación.

3. Las cesiones de obras, instalaciones y dotaciones a que se refiere este artículo serán formalizadas en actas que suscribirán la Administración actuante y la Junta de Compensación."

Izan ere, honen inguruan, bai doktrinak, bai jurisprudentziak sarritan adierazi izan du obrak behin-behinean zati batez jaso daitezkeela; beti ere, zuzenean erabiltzeko moduko batasun funtzionala badago edo urbanizazioaren zati independente edo autonomoei eragiten badie. Horren harira, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko apirilaren 28ko epaia daukagu (administrazioarekiko auzi-gela, 1. Sekzioa, 1748/2003 errekurtsua).

Beraz, nahiz eta erregela orokorra izan urbanizazio obrak osotasunean jasoko direla, Kontzertazio-Batzaren erantzukizunpean dauden urbanizazio obren jasotzea **zati** bati buruzko izan daiteke; beti ere, zuzenean erabili daitekeen **unitate funtzionala** bada eta **Kontzertazio-batzak behin betiko jasotzea** egin badu.

Hori ez da espedientetik ondorioztatzen.

Lehen okupazioko lizentziari buruz, araututa dagoen hirigintzako lizentzia honen helburua da objetiboki konprobatzea eraikitako eraikina bat badator proiektuarekin zein emandako obra lizentziarekin eta urbanizazioa eraikinarekin batera edo aurretiaz egin bada eta urbanizazio proiektuarekin bat badator.

Behin jasota urbanizazio obrak, bai osorik, bai zati batez, lehen okupazioko lizentzia eman daiteke; beti ere, eraikinak jasotako urbanizazio obren barruan badaude.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2



- Komenigarria da udal arkitektoak hitzarmenari buruzko **txosten teknikoa** egitea, bai hirigintzako araudiarekin egokitasuna zehazteko, bai obren zenbatekoaren gaineko egokitasuna adierazteko.

Ondorioak

Aurretik aipatutako guztian kontuan hartuz, **kontrako txostena** egiten zaio Bermeoko Udala, Sabadell Real Estate Development eta 21.2 exekuzio unitateko kontzertazio batzaren arteko hitzarmen proposamenari.

Oharrak:

- Ez da ondorioztatzen zein den hitzarmenean agertzen den Udalaren interesa urbanizazio obrak atzeratzeko
- Ez da egoki ikusten betebeharra duen kontzertazio batza desegitea eta erantzukizunetik at uztea.
- Kontzertazio-Batzaren erantzukizunpean dauden urbanizazio obren jasotzea behin-behinean zati batez egiteko justifikatu behar da zuzenean erabili daitekeen unitate funtzionala dela eta Kontzertazio-batzak behin betiko jasotzea egin duela.
- Udal arkitektoak hitzarmenari buruzko txosten teknikoa egitea komenigarri ikusten da, bai hirigintzako araudiarekin egokitasuna zehazteko, bai obren zenbatekoaren gaineko egokitasuna adierazteko.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Alkatetzak edo Tokiko Gobernu Batzarrak egoki deritzona erabakiko du.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 01/08/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/08/2019
12:56:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0207
Data: 01/08/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E30002997A00M5R5O5B7A8Q2

